



Mungiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloan hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzen arautegia

1. artikulua.—Xedea

Arautegi honen xedea hauxe da: Mungiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduen hizkuntza-paisaian eta ingurune digitalean euskararen presentzia sustatzea.

I. KAPITULUA

2. artikulua.—Baliabide ekonomikoak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzetarako kredituek ez dituzte gaindituko 2026ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkion kredituak. Kreditu horiek 4.000,00 eurokoak (lau mila euro) izango dira, eta **04/3351/47101** partidari egotziko zaizkio. Kreditu hori agortzen bada (eskarien ondorioz), eskatutako laguntza ukatu egingo da.

3. artikulua.- Aplikazio eremua eta onuradunak

Mungiako udalerrian merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu-establezimendua duten pertsona fisikoek zein juridikoek eska ditzakete dirulaguntza hauek.

Programa honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira:

- Mungian kokatuta ez dauden lokalak.
- Kale mailan kokatuta ez dauden lokalak, hau da, kaleko hizkuntza paisaian eragin nabarmena ez dutenak.
- Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastetxeak eta entitate publikoak.
- 50 langiletik gorako enpresa edo entitateak.
- Alderdi politikoak eta sindikatuak.
- Erakunde publikoak, sozietate publikoak eta zuzenbide publikoaren arabera eratutako beste edozein enpresa. Era berean, kanpo gelditzen dira finantza erakundeak, enpresa handietako ordezkaritza-bulegoak eta antzekoak.

Eskaria egin ahal izateko, ezinbestekoa da establezimenduaren titular edo errentari izatea.

4.- artikulua.- Diruz laguntzen diren gastuak

- 1.- Kanpoko errotulua, toldoen errotulazioa, ibilgailuen errotulazioa eta pertsien kanpoko errotulazioa euskaraz jartzea.
- 2.- Establezimenduaren barne errotulazioa (komunak, aldagela, jangela...) euskaraz jartzea, baita bezeroak jarduerari buruz informatzeko lokalean jarrita dauden informazio-euskarri finkoak (panelak, kartelak, menuak...) euskaraz jartzea ere.
- 3.- Webguneak euskaraz jartzea.

2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 10era arte egindako gastuak lagundu ahal izango dira diruz.

5. artikulua.- Onuradunen betekizunak



Diruz lagunduko diren elementuei dagokienean:

- Euskaraz jarritako errotulu, hizkuntza paisaia edo web-orriak zuzen idatzita egon beharko du, hau da, ez du akats gramatikalik ez ortografikorik izango. Eta zuzentasun hutsetik harago, egokia, argia eta erosoak izan beharko du.

Beraz, testuak inprimatu aurretik, Mungia Udalaren Euskera Sailera jo beharko da (itzulpenak@mungia.eus, 946749089), eta sail horrek ziurtagiri bidez emango du bere onespena. Onespen hori barik ezingo da dirulaguntzarik jaso.

- Izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak soilik adierazten dituzten errotuluek eta gainerako elementuek ez dute dirulaguntzarik jasoko. Establezimenduaren jarduerak (taberna, okindegia, arropa-denda...) derrigor agertu behar du errotuluan, ordena zuzenean jarrita.
- Behin-behineko pankartek edo euskarriek ere ez dute dirulaguntzarik jasoko, establezimenduaren errotuluak egonkorra izan behar du eta.
- Euskara eta beste hizkuntza bat aukeratzen direnean euskarrietarako, euskararen presentziak lehentasuna izango du (kokapena, tamaina...). Salbuespen bakarra webguneak izango dira. Webguneetan lehentasun bera izan dezakete baina euskarazko bertsioak irismen errazekoa izan behar du.

Horretaz gain, honako baldintzak bete beharko dira:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eskabidea aurkezteko unean, edo alta hori, gehienez, 2 hilabeteko epean izapidetzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Mungia Udalarekiko, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. Dirulaguntzaren ordainketa egin aurretik, organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du Udalarekin, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak betetzen direla. Horretarako, eskakizunean espresuki ukatzen ez badute, eskatzaileek Mungia Udalari baimena ematen diotela ulertuko da.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez egotea, eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, sexu-diskriminazioagatik edo askotariko diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte dirulaguntzen onuradun izateko.

6. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Kanpoko errotulua, toldoen errotulazioa, ibilgailuen errotulazioa eta pertsiaren kanpoko errotulazioa:

Euskaraz bakarrik idatzitako elementu bakoitzaren gastuaren % 50 diruz lagunduko da, 360 euro gainditu gabe. Hizkuntza ofizial bietan idatzitako elementu



bakoitzaren gastuari, berriz, % 30eko dirulaguntza emango zaio, 180 euro gainditu gabe.

2. Establezimenduaren barne errotulazioa (komunak, aldagela, jangela...) eta bezeroak jarduerari buruz informatzeko lokalean jarrita dauden informazio-euskarriak finkoak (panelak, kartelak, menuak...):

Euskaraz bakarrik idatzitako elementu bakoitzaren gastuaren % 50 diruz lagunduko da, 220 euro gainditu gabe. Hizkuntza ofizial bietan idatzitako elementu bakoitzaren gastuari, berriz, % 30eko dirulaguntza emango zaio, 150 euro gainditu gabe.

3. Webguneak:

Euskara hutsez idatzitako webguneen gastuaren % 50 diruz lagunduko da, 250 euro gainditu gabe; era berean, hizkuntza euskarara aldatzeko aukera eskaintzen duten gaztelaniazko webguneen gastuaren % 30 diruz lagunduko da, 400 euro gainditu gabe.

Ehuneko horiek % 10 handituko dira eskatzaileak egiaztatzen badu *Harrobi*, *Bikain* edo *Bai Euskarari* ziurtagiriak dituela edota *Euskaraz barra barra* proiektuan parte hartzen duela.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira helburu bererako edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk ematen dituen beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak lortzearekin.

Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera eta errekurtsio batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu erakunde onuradunak egin beharreko gastu osoa.

1, 2 eta 3 puntuetan ezarritako laguntzak arlo bakoitzari dagozkio eta bateragarriak dira. Beraz, lokal batek hiruretarako laguntza jaso dezake.

II. KAPITULUA

7. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

7.1.- Pertsona juridikoek Mungiako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute eskaera; pertsona fisikoek, berriz, egoitza elektronikoaren bidez edota Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dute; betiere, eskatutako dokumentazioa erantsita.

Establezimendu bakoitzeko laguntza-eskaera bakarra aurkeztuko da egindako inbertsio guztietarako.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango da.

7.2.- Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko irailaren 10era arte aurkeztu ahal izango dira dirulaguntza-eskariak.

Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerarik.



Kreditua agortzen bada, epe barruan aurkeztu eta laguntza barik gelditu diren eskariak hurrengo urtean lehenetsi egingo dira. Hori bai, hurrengo urtean eskaria aurkeztu beharko dute berriro epe barruan.

Esleitutako partidaren kreditua agortu ondoren jasotako eskabideak ezetsi egingo dira.

8. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- a) Eskabide-orri ofiziala, behar bezala beteta. Eskabide-orri hori hiru lekutan dago eskuragarri: Udalaren web-orrian (www.mungia.eus), Udalaren Egoitza Elektronikoa eta Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.
- b) Egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturen kopia bana. Faktura horietan eskabidearen xede diren eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuek agertu beharko dute, bai eta ordainketa-datak ere. Diruz lagundu daitezkeen aktiboak argi identifikatuta dituzten fakturak baino ez dira onartuko. Hala badagokio, fakturek argi eta garbi bereizita erakutsi beharko dituzte euskarriaren zenbatekoa eta errotuluaren inprimaketarena.
- c) Errotulua jarri dela frogatzen duen argazkia (argazki bat errotulu bakoitzeko) edo, bestela, errotulua jartzeko proiektua. Gainera, establezimenduaren kanpoko errotuluaren edo ibilgailuaren gaineko dirulaguntza eskaera bada, establezimenduaren kanpoko errotulu guztien edo ibilgailuaren alde guztien argazkiak aurkeztu beharko dira.
- d) Webgunearen URL eta domeinuaren izena.
- e) Euskaraz jarritako errotulazioa edo webgunea euskaraz zuzen eta egoki dagoela egiaztatzen duen agiria, Mungia udaleko Euskera Sailak emandakoa (ez da beste inolako erakundek emandakoa onartuko).

9. artikulua.- Aholkularitza eta itzulpen-zerbitzua

Udaleko Euskera Saileko itzulpen zerbitzuak doan eskainiko du helburu honen xede diren testuen euskaratzea, zuzentzea eta bizkaieratzea. Horrez gain, Euskera Sailak informazioaren antolaketaren gaineko aholkua ere emango du, baldin eta idatzitako informazioaren ulermen errazak arriskua duela edo jaso den proposamena hobetu egin daitekeela uste badu.

Euskera Saileko itzulpen zerbitzuak heltze ordena errespetatuko du erantzuteko; hala ere, aparteko denbora hartuko du eskatu den testuak ulertzeko zailtasun bereziak baditu (gaiaren espezifikotasunagatik, maila teknikoagatik...).

Eskatzaileek prest egon beharko dute zerbitzu horrek testuaren edukia ulertzeko behar dituen argibide guztiak emateko.

Landu beharreko bolumena aintzat hartuz, eta erantzun ahal izatea bermatzeko, printzipioz, webguneen kasuetan hasierako orria da zerbitzu horrek deialdi bakoitzean doan landuko duena, hortik gorakoaren euskaratze, zuzentze- edota egokitze-lanak



eskatzailearen kontura izango dira. Edonola ere, hurrengo ateratzen den deialdian aurkeztu ahal izango du aurrekoan aurkeztu duenaren jarraipena.

Webguneen kasuan, deialdi bakoitzeko, 1.000 berbako gehieneko kopurua euskaratuko (zuzenduko, bizkaieratuko) zaio eskatzaile bakoitzari.

Akatsak saihesteko, eskatzaileak itzulpen zerbitzutik jaso duen bezala jarriko ditu testuak dagozkien euskarrietan; aldaketarik egin gabe.

Zerbitzu honek ez du erantzukizunik izango entregatu dituen testuetan hirugarrenek gerora egindako aldaketetan; eta horrelakorik eginez gero, ezin izango da inon agertu Udaleko zerbitzu horren oniritzia dutenik, ez zati batean ez osorik.

Horrelakorik antzemango balitz, Udalak jakinarazi egingo dio dagokion arduradunari eta, horrekin batera, ez du izango hurrengo deialdian helburu honetarako eskaririk egiteko aukerarik.

10. artikulua.- Eskabideen azterketa eta ebaluazioa

Dirulaguntza eskabideei erantzun egingo zaie, betiere zuzenketaren bat eskatu behar ez bada, aurkezpen-eguna eta -ordua erreferentziatzat hartuta.

Dirulaguntza onartutzat joko da, baldin eta jakinarazpena egin eta hamar eguneko epean interesdunak berariaz atzera botatzen ez badu.

Eskaria ondo beteta ez badago edo eskatzaileak aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari eskabide orria edo dokumentazioa osa dezan.

Kasu horretan, eskabidea bere dokumentazio guztiarekin behar bezala aurkeztu den egun-orduak hartuko dira erreferentziatzat.

Hala egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta hala jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 68.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

11. artikulua.- Dirulaguntzaren ebazpena eta ordainketa

Eskariak baloratu ostean, epaimahaiak ebazpen-proposamena egingo du. Behin, baldintza guztiak beteta daudela egiaztuta eta epaimahaiaren ebazpen-proposamena onartuta, Alkate-Udalburuak ebatziko ditu dirulaguntzak, behar bezala arrazoituta, ebazpen bidez.

Dirulaguntzen emakida kreditu erabilgarria agortu arte emango da, Udal Erregistro Nagusian jasotako eskaeren sarrera data orduaren arabera lehentasun-ordenari jarraituta.

Partida horri esleitutako kreditua agortu ostean jasotako dirulaguntza-eskabide guztiak eta ezarritako epetik kanpo aurkeztutakoak ezetsi egingo dira. Hori bai, kreditua agortu delako dirulaguntza barik gelditu diren eskariak berriro aurkeztu ahal izango dira 2027ko deialdira, deialdi horrek ezarritako bete beharrak beteta.

Behin eman eta onartu ondoren, onuradunek ordainketa bakarrean jasoko dute dirulaguntza.

12. artikulua.- Onuradunen informazioaren konfidentzialtasuna

Mungiako Udalak konpromisoa hartzen du dirulaguntza hauen onuradunei buruzko informazioa ez duela erabiliko programaren esparrukoa ez den beste ezertarako.

Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak



Bermatzeari buruzkoa; 2016/679 (EB) Erregelamendu, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

13.- Aurrekontuko zuzkidura

Dirulaguntza hauek emateko, dagokion deialdian jasotzen den zenbatekoa erabiliko da, ekitaldi bakoitzeko udal-aurrekontuaren barruan.

14.- Xedapen gehigarria

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.